



Hizkuntzaren normalkuntza prozesua Justizia Administrazioan

(The linguistic normalisation process in the Justice
Administration)



TAPIA PARREÑO, Jaime

Gasteizko Entzutegi Probintzialeko epailea
Gasteiz hiribidea, 18
01008 Gasteiz

BIBLID [1137-1951 (2000), 6; 141-148]

asko hitz egiten da Justizia Administrazioa euskalduntzeko beharraz. Estatuko hirugarren botere honek gure hizkuntzaren inguruan eman dituen erabakiak, orain bertan nola dagoen, eta gerora begira nondik jo daitekeen ikusiko dira jarraian.

se habla muy a menudo sobre la necesidad de euskaldunizar la Administración de Justicia. A continuación se detallan las decisiones emanadas del tercer poder del Estado en torno al euskara, la situación presente, y las posibilidades barajables para el futuro.

an parle souvent de la nécessité d' "euskalduniser" l'Administration de Justice. On étudie ci-après les décisions du troisième pouvoir de l'Etat concernant le basque, la situation actuelle et les possibilités envisageables pour le futur.

1. Sarrera. 2. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Goreneko Gobernu Aretoa. 3. Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiak. 4. Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko Hitzarmena. 5. Eusko Jaurlaritzak. 6. Etorkizuna.

1. Sarrera

1994ko maitzaren 27an Bizkaiko Abokatuen Bazkun Ohoretsuko Euskara Batzordeko Justizia Administrazioan Euskeraren Normalkuntzari buruzko txostenak zioen:

"...Euskera ofiziala bihurtu zenez geroztik... Justizia Administrazioari dagokionez azken 16 urte hauetako balantze orokorra egin ondoren, uste dugu badagoela baieztatzerik egokiera —euskeraren ofizialtasunak eskatzen dituen bitarteko eta neurrietara iristeko— minimoen azpitik burutu dela... gabeziak eta arazoak konponbidean jartzeko garaia badela uste dugu...".

Onartu behar dudan arren, azken 16, orain 20, urte hauetan, erakunde honetan burututako ahalegina euskeraren normalizazioa lortzeko txikia izan dela¹, zenbait jarduera egin dela baieztatu dezakegu.

Egia esan, garatu den ia aurrerapen osoa azken hiruzpalau urteetan gertatu da, eta zoritxarrez 16 urte galdu ziren pairatzen dugun egoera tamalgarria leuntzeko.

Nire lanaren ardatza, bada, alde batetik, azkenaldian Justizia Administrazioan lan egiten duten aginte publikoek egin dituzten jarduerak edo ekitaldiak, garrantzitsuenak behinik behin, azaltzea izango da. Bestetik, zein den gaur egungo egoera adierazten saiatuko naiz, eta amaitzeko datozen urteetan euskeraren normalkuntzaren gure eremuan jazo daitekeenaz hausnartuko dugu.

Aginte publikoen artean, lehendabizi Aginte Judizialaren jarduera euskeraren erabilpena bultzatzeko aztertuko dugu, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Goreneko Gobernu Aretoaren aldetik, bai Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusiaren aldetik.

Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak, Justizia Sailaren bitartez bereziki, zenbait neurri hartu ditu, bere ahalmenen barruan eta beste erakundeekin

lankidetzaz edo elkar lanaren bitartez, esparru honetan dagoen arazoa ahal izan duen heinean bukatzeko. Eusko Jaurlaritzak hartu dituen neurrien edota burutu dituen ekimenen berri emanen dizuegu.

Justizia Ministerioak, oraindik arlo honetan zenbait eskumen mantentzen dituzenez gero (eta izan zituen), erakunde honetaz zerbait azaldu behar dugu, ezer gutxi egin zuen arren eta garai honetan ardura gehigirik agertu ez badu ere.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Goreneko Gobernu Aretoa

Ez da lan hau, ulertuko duzueenez, tokirik proposena erakunde honetako eskumenak zeintzuk diren adierazteko, baina esan dezakegu, Aginte Judizialaren Lege Organikoaren 152. atalaren arabera, autonomia erkidego batean, erakunde honek ahalmen garrantzitsuak dituela Justizia arloan eta aginte judizialean batik bat; hau da, barruko epaitegien eta auzitegien gobernuan, beti ere Kontseilu Nagusiaren menpean.

Aipatutako Gobernu Areto horrek aspaldidanik gai honekiko bere kezka azaldu du². Azken urteotako ekitaldiei besterik erreparatzen ez diegunez gero, lehendabizi 1993ko ekainaren 30eko erabakia adierazi behar dugu.

Ebatzi honetan, erakunde judizialek, beren zerbitzuak euskaraz eskaintzeko ziztuzten zailtasunak egiaztatu ondoren eta eremu honetan zeuden gabeziak onartu ostean, Euskal Herriko Justizia Administrazioan euskalduntze plan orokorra eta zehatza egitea proposatzen zien Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusiari, Justizia Ministerioari eta Eusko Jaurlaritzari, deskribatutako egoera kezkarri hori gainditzeko. Euskalduntze prozesu hori bereziki funtzionarioei zegokien, eta gero esango dugunez, ez dago oraindik eginda.

1996an hasi ziren lehenengo arazoak itzultzaile eta itzulpenekin. Urte hau arte —eta oraindik ere bai—, hiritar batek Justizia Administrazioan ahoz zein idatziz euskera erabili nahi bazuen, gehienetan itzultzaile bat behar zuen —eta oraindik normalean du—. Bitartekaritza hori beharrezkoa zen (da). Sistema hori gehienbat onartuta zegoen, nahiz eta esan behar dugun garai horretarako zenbait abokatu bere kezka agertuta zirela, ez baitzuten itzultzailearen lana amaitzen.

1. LARREA, J.L. *El Concierto Económico: el Cupo y la Leyes quinquenales del Cupo*, Estudios sobre el Estatuto de Autonomía del País Vasco (IV), Oñati: IVAP-HAEE, 1991. Indarrean dagoen Kupoa (1997-2001) kalkulatzeko zenbait aldaketa egin dira, baina oinarrian antzekoa da, nahiz konpentsazioen kopurua urritu, Zerga Bereziak hemendik aurrera Foru Ogasunek bilduko dituztelako.

2. BELDARRAIN, M. eta beste batzuk. *La autonomía fiscal en Euskal Herria*, Bilbo: Manu Robles-Arangiz Institutua, 1996.

Urte horretatik, eta batez ere 1997 urteaz geroztik, letratu batzuk era askotan beren protestak azalarazten hasi ziren eta Justizia Administrazioan krisi egoera batean sartu ginen, oraindik, Bizkaian zenbait jazoera gertatu ostean, amaitu ez dena.

Gai hau ez da guk azaldu behar genuena eta ziurrenik beste lan batean jorratuko da. Ez dugu beraz zehatz-mehatz aztertuko.

Hala ere, laburki esan genezake, Auzitegi Goreneko Gobernu Aretoak —eta Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusiak ere bai— itzulpen sistemari eutsi diola Justizia Administrazioan euskeraren eskaera gero eta handiagoari erantzuna emateko.

Horregatik, Erakunde honek 1997ko urriaren 17an prebentzio bat sortzen du, alde batetik adierazteko zein baldintza bete behar dituen itzulpenak; bestetik azaltzeko nola egin behar den judizioetan eta gainerako ekintza judizialetan itzultzailearen lana, eta azkenik, epaileei eta auzitegietako presidenteei Aginte Judizialaren Lege Organikoaren 448. eta hurrengo ataletan aurreikusitako (zigor) neurriak erabil zitzatela ohartarazteko, baldin eta prebentzio horretan ezarritako betekizunak abokatuek nahiz prokuradoreek beteko ez balituzte.

Tamalez, urte honetatik zenbait epailek neurri horiek ezarri behar dituzte letratu batzuek egindako egintzengatik. Hau ere ez da niri dagokidan gaia, uste baitut euskaraz auzitaratzeko eskubidearekin harreman zuzenagoa duela. Hala ere, Gobernu Aretoak afera honetan nahigabeko protagonismo bat hartu zuenez gero, zigor-isun horien aurka errekursoak aztertzerakoan, puntu hau, labur bada ere, aipatzea merezi duela iruditzen zait, batez ere kontuan hartzen badugu batzuetan gaizki interpretatu direla erakunde hark harturiko erabakiak, zenbait abokatuei zigorrak itzulpen sistema ez onartzeagatik ezarri zaizkiela adierazten delarik.

Ildo honetatik, zio honegatik zigortuak ez direla frogatzeko, 10/ 98 zenbakiko gobernu errekursoa aipatu ahal dugu:

"Onartu egin dezakegu, inolako oztoporik gabe, autonomia erkidego honetan... judizioak euskera hutsez buru daitezkeela. Are gehiago, esango genuke hori egokiena litzatekeela, baldin eta akusatuak hizkuntza hori erabiltzen badu bere azalpenetan, garbi baitago, itzultzaileak bere eginkizuna ondoen egingo duen arren, mezuaren jasotzaileak, epaileak nahiz fiskalak, azalpenen edo alegazioen zenbait ñabardura galdu egingo dituela —eta ñabardurak oso garrantzitsuak dira zigor prozeduretan, denok dakigunez— eta beti egongo da hautemango ez duen zerbait.

Hori guztia onetsirik ere, honek ez du justifikatzen, inola ere ez, letratuaren portaera —epaitegi aretotik alde egitea inolako baimenik gabe—, batez ere aintzakotzat hartzen badugu berak onartu zuela euskeraren auzia jurisdikzio gaia zela, epaitegiak esan ziolako alde zurretiko Kuestio bezala planteatu ahal zuela, eta erabaki honen aurka ez zuen errekurtsorik jarri, eta gainera ahozko judizioaren eguna iritsiko zenean, askatasun osoz, gai honi buruz gura zituen alegazioak egin ahal izan zituela.

Letratuak, epailearen erabakiarekin ados ez bazegoen —judizioak itzultzaileekin jarraitu behar zuela—, bere jokabidearekin frogatu zuenez gero, egokiak ziren errekursoak aurkez zitzakeen, Prozedura Laburrari dagokionez, Judiziamendu Kriminalako Legearen 795. 1 eta 2. atalaren arabera —are gehiago zenbait Konstituzio eskubide urratu zirela argudiatu zuela kontuan harturik— apelazio errekurtsua hain zuzen ere, non abokatuak nahi zituen alegazioak egin zitzakeen, eta agian bere eskakizunak Donostiako Auzitegiak onar zitzakeen.

Aitzitik, gure antolamendu juridikoko ezein arauk abokatuaren jokabidea baimentzen du, letratuak baietz uste duen arren. Portaera hori onartuko balu, abokatuaren interesetarako kaltegarria litzatekeen epaitegietako edozein erabaki gertatu zenean halako zerbait egitea —aretotik joatea alegia— onetsiko luke, eta hori nabarmenki ez da horrela. Adibide gisa, letratuak delituaren preskripzio alegazioa edota jardueren deuseztasun eskaera egingo balu ahozko judizioaren hasieran, maiz jazotzen denez, eta epaileak eskakizun hori ukatuko balu, letratuak, ados ez legokeenez gero, alde egin lezake...".

Erabaki honetatik ondoriozta daiteke Gobernu erakunde honek onartzen duela itzultzaile sistema ez dela egokiena (zenbait oinarrizko eskubide kolokan egon daitezkeela ere bai), baina aldi berean ez dagoela arrazoi funtsezkorik gure antolamendu juridikoan epaitegiko aretotik ospa egiteko arrazoi horregatik.

Atal hau amaitzeko, esan behar dugu Gobernu aretoak gero aipatuko dugun Hizkuntza Normalkuntza Batzordean parte hartzen duela.

3. Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiak

Espainiako Botere Judizialeko Kontseilu Nagusiak, bere 1998ko otsailaren 25eko osoko bilkuran, Karrera judizialaren ekainaren 7ko 1/

1995eko Erregelamendua aldatzea erabaki zuen³, 108. artikulua eta hurrengoak hain zuzen ere⁴, non araudi hau indarrean jarri zenez geroztik karrera judizialeko kideen lekualdatze-lehiaketetan autonomia erkidegoetako hizkuntza ofizialak (euskeraren barne) eta foru zuzenbide zibila jakitea merezimendu nagusizat hartzen den⁵.

Legedi honen arabera, bat, bi edo hiru urteko aitizintasuna ematen zaio meritu hori aitortu dioten epaileari autonomia erkidego horretako erakunde judizialeko lekualdatze-lehiaketetan, non hizkuntza hori ofizialkidea den; hau da, euskerari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde judizialeko eta, nire iritziz, nahiz eta hori zalantzarik izan, Nafarroakoetarako ere merezimendu hori kontuan hartuko da.

Zehatzago esanda, urte bat, eskaeragilea epailea bada, eta eskatutako epaitegian jule kategoriakoak⁶ diren karrera judizialeko kideek beren funtzioak betetzen badituzte. Bi urte, eskatzailea magistratua bada eta eskatzen duen organo judiziala norbakterkoa bada, eta hiru urte, azkenik, magistratua bada eta berak eskatzen duen organoa kolegiatua edo bildua bada, auzitegia, alegia.

Meritu hori lortzeko, aipatutako araudi horren 109 1. eta 2. atalaren arabera, interesatuta daudenek eskaera bat auzitegi behar dute, eta horrekin batera autonomia erkidegoetako dagokion erakundeak emaniko ziurtagi bat igorri behar da hizkuntza haren ezagutza frogatzeko.

Erregelamendu horretan zehaztu ez bazen ere, Aginte Judizialeko Kontseilu Nagusiak, bere 1998ko urriaren 14ko osoko bilkuran, hizkuntzaren meritua aitortzeko irizpideak, titulu edo ezagutza maila dagokienez, finkatu zituen.

Euskal Autonomia Erkidegoan dauden lanpostuak eskuratzeko lekualdatze lehiaketetan euskera jakitea lehentasunezko meritutzat baloratu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren bigarren hizkuntza-eskakizuna eta bere balioak⁷ onartzea deliberatu zuen⁸.

Orain arte, Euskadiko lau epailei besterik ez digute meritu hori aitortu, datoen hila batean zurrerik gehiago izango diren arren, zenbait epaile azkertetak egiten ari baitira maila hori erdiesteko.

Erregelamendu honetan ez zegoen epailegaien kasua aurreikusita. Justizia Administrazioan autonomia erkidegoetako ofizialkideetasuna sustatzeko, normalkuntza bidean, Kontseilu Nagusiaren osoko bilkurak joan den maiatzean araudi horren eragina luzatzea erabaki zuen.

Maiatzaz geroztik, hortaz, Eskola Judizialek irtengo diren epailek (datorren irailean seguraski lehendabizikoek) hizkuntza ofizialkideak dituzten autonomia erkidegoetako epaitegiak lehen lanpostutzat aukeratzeko abagune gehiago izango dute, hizkuntza horien jakite maila hori egiaztatzen badute.

Hau da, mintzaira horren ezagutza frogatuko dutenei, baldin eta hizkuntza ofizialkide bat —euskeraren kasu— duen autonomia erkidego bateko epaitegi bat hautatzen badute —Euskal autonomia erkidegoa adibidez, edo Nafarroa, nire aburuz—, ezagutza hori merezimendutzat hartuko da eta, beraz, lehentasuna izango dute epaitegi hauetan karguaz jabetzeko.

Helburu hori lortzeko, gainera, 1998tik euskarazko irakasle bat dago Bartzelonako eskola judizialean, edozein epailegai euskera ikasteko parada izan dezan.

Araudi honekin guztiz lotuta ez badago ere, oso hurbil dagoenez, aipatzea merezi du datoen urteetan euskera jakitea meritutzat aitortuko zaiela ordezkari epaile nahiz magistratu izan nahiko duten pertsonari.

Berrikitan, urte honetako ekainean hain zuzen ere, Euskadirentzat Kontseilu Nagusiko bokalari, Emilio Olabarria jaunak, proposatu zion erakunde horretako osoko bilkurari ordezkari epaile zein magistratu izan nahiko duten pertsonari euskera jakitea meritutzat aurkeztu ahal izango dutela, baldin eta eskatuko duten epaitegia

3. CEBRIÁN, L. *Los recursos de la Hacienda General del País Vasco*, Oñati: IVAP-HAEE, 1994; LAMBARRI, C. eta LARREA J.L. *El Concierto Económico*, Oñati: IVAP-HAEE, 1991; eta BAKAIKOA, B. *Autonomi Ogasunak eta Europako Komunitateko Aurrekontuak*, Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 1992.
4. RODRIGO, M.A. *La regulación de Sociedades en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Efecto en las entidades de Economía Social*, Revista CIRIEC, 23 zkia., urria, 1996.
5. JULIÁ, J. eta SERVER, R. *Fiscalidad de las Cooperativas*, Bartzelona: Pirámide, 1992.
6. ELA, *La fiscalidad en Euskal Herria en 1996: enquistamiento del fraude*, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbo, 1997.
7. Ikusi Eusko Jaurlaritzaren 263/98 Dekretua, urriaren 6koa (EHAAn, 1998ko urriaren 23an argitaratua), Euskararen Gaitasun Agiriaren eta irakaspostuetarako Hizkuntza Eskakizunen balioak finkatu, eguneratu eta berresten dituenak.
8. Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren hitzarmenaren laugarren klausulan, bigarren hizkuntza-eskakizun hori berresten da. Hizkuntza Normalizazio Batzordeak, karrera judizialeko kideak (Kontseilu Nagusiak, Gobernu aretoa eta elkarte judizialak), fiskalak, idazkari judizialak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko kideak, Kultura Sailak, UZEIkoak, unibertsitateko ordezkariak, abokatuak, Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzako ordezkariak osatzen dutenak, hirugarren hizkuntza-eskakizuna proposatu zuen.

(ordezko izateko) gune euskaldun batean badago, non euskaldunen maila edo ratio oso altua den.

Proposamen hori, aldez aurretik Hizkuntza Normalkuntza Batzordeak onartua zuen eta erakunde honek, aitaturiko bokalaren bitartez, Kontseilu Nagusiari helarazi zion.

Behin betiko erabakia deliberatu baino lehen, erakunde honetako ikasketa eta txosten batzordeak zehaztu beharko du zein den prozedura merezimendua alegatzeko, kontuan harturik Auzitegi Goreneko Gobernu Aretoa badela ordezko epaile nahiz magistratuen proposamenak Kontseilu Nagusiari igortzen dizkiona.

4. Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko Hitzarmena

1999ko otsailaren 18an Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zenbait arlotan euskeraren erabilera normalizatzeari buruzko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten⁹.

Atzeman daitekeenez, Akordio hau ez dagokie ez Fiskaltzari ezta idazkariei ere. Hauei, bada, ez dago Itun hau ezartzerik.

Hitzarmen honen mamia azaltzea garrantzitsua da euskeraren etorkizuna, epe laburrean bederen, Justizia Administrazioan jakitearren.

Lehenengo klausularen arabera, Kontseilu Nagusiak eta Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan euskeraren erabilieraren normalizazioa bultzatu eta sustatu nahi dute eta xede hori lortzeko:

1.- Karrera Judizialeko kideek, zein kidegaiek, bake-epaileek eta ordezko epaileek euskara ikas eta sakon dezaten saiatuko dira,

2.- Judizio-egintzetan, jendeari laguntzean eta Justizia Administrazioko langileekin nahiz laguntzaileekin izan beharreko harremanetan euskeraren erabilera bultzatuko dute, eta

3.- Justizian erabilitako euskera —batez ere, euskera juridikoa— zabaltzen eta ontzen saiatuko dira.

Justizia Administrazioan euskeraren normalkuntzarekin aurrera jarraitzeko asmoz, eta otsailaren 18an sinatutako Lankidetzaren Hitzarmen hori garatzeko, euskera ikasteari eta sakontzeari dagokionez bereziki, 1999-2000 ikasturterako Euskal Herriko karrera judizialeko kideei, karrera judizialean sartu nahi duten eskola judizialeko ikasleei, bake epaileei eta aldi baterako epaileei nahiz ordezko epaile eta magistratuei zuzendutako euskalduntze-alfabetatze eta euskera juridikoko ikastaroen eskaintza joan den ekainean zabaldu da¹⁰.

Eskaintza honetan, lankidetzaren hitzarmenaren ezarritakoari jarraiki, azpimarratutako gure egunean ordu t'erdiko eskolak —euskalduntzeko 5. urratetik aurrera astebeteko egonaldiekin—; 5 orduko ikastaro trinkoak, HABEk ezarritako 5. urratsa gainditu dutenentzat zuzendutakoak; izaera trinkoa duten udako ikastaroak; 4. hizkuntza eskakizuna prestatzeko ikastaroa eta ikastaro juridikoari buruzko ikastaroak aurreikusten direla.

Zenbait kasutan bederen —nahiko maila ona daukatenei—, Kontseilu Nagusiak, bere aldetik, baimen bereziak emango dizkie ikastaro nahiz egonaldiak egingo dituzten epaile horiei, hauek euskera besterik ikas ez dezaten, eta bitartean beren epaitegiatarako ordezko epaileak izendatuko dira. Joan den ikasturtean, amaitu berri honetan, jada eskaintza zabal hori nolabait hasi zen eta 68 epailek (mota hauetakoez guztietakoez) parte hartu zuten kurtso horietan.

Aurreko paragrafoan azaldutakoarekin lotuta, adieraztekoa da lankidetzaren hitzarmenaren bosgarren klausulak bide ematen duela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren zerbitzuan diharduten karrera judizialeko kideek, kidegaiek, behin-behineko epaileek, ordezko epaileek eta bake-epaileek Herri Arduralaritzako Euskal Erakundeak hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko antolatzen dituen deialdietara aurkezteko. Aurreikuspen hori egikaritzuz, arestian (maiatzean hain zuzen) hizkuntza eskakizunak gainditzeko deialdia zabaldu da.

Lankidetzaren honetako beste alderdi bat, seigarren klausulan finkatuta dagoena, dokumentuen itzulpenei eta euskera juridikoari dagokie.

Egia esan, 1996tik, Eusko Jaurlaritzak, alde batetik Gipuzkoako Abokatu Elkargoko Euskera Batzordearekin batera formulario asko euskeraz

9. Ikusi EHAA, 1999ko apirilaren 9koa.

10. Horrek ez du esan nahi joan diren urteotan ikastarorik egon ez denik. Aitzitik, Eusko Jaurlaritzak Justizia Administrazioan bere lehenengo eskumenak bereganatu zituenetik, 1989tik, urtero ikastaroen eskaintza egon da. Azken urteotan kurtso horiek bi erakunde horien artean sinatutako beste akordio baten barruan zeuden, hau da, Euskal Herriko diharduten epaileentzako formakuntza planaren barnean.

argitaratu ditu, eta bestetik HAEEri eta beste erakundeei esker (UZELri adibidez) epaitegietan erabiltzen diren hainbat dokumentu itzuli eta ordenagailuetan kargatu ditu, une honetantxe bukatu ez duen bilakaera batean. Hasiera batean prozedura zibilekin hasi zen lana eta gero prozesua beste orden jurisdikzionaletako agiriekin jarraitu da (penala, gizarte edo lan arlokoak, errolda zibilekoak eta abar).

Halaber, zitazioak, jakinarazpenak eta herritarrenganako gainontzeko komunikazio egintzak euskeraz ordenagailuen bitartez egiteko prest daude, batzuetan erakunde judizialeko erabiltzaileek horretaz gutxi dakiten arren, eta zio horrengatik edota erosotasunagatik nahiz errutinagatik ez da euskerara jotzen, sistema informatikoan badaude ere esan dugun bezala, eta laster beste agiri batzuk egonen dira.

Lan honi ekin ziotenean, ohartu ziren Eusko Jaurlaritzakoak eta HAEEkoak zenbait idazkietan agertzen ziren hitz eta esamolde juridikoen itzulpena eztabaidagarria izan zitekeela eta horrexegatik termino juridikoen normalkuntzarako batzorde bat antolatu zuten, Deustuko eta EHUKo unibertsitateko irakasleek, abokatuek, epaileek, UZEL eta HAEEko kideek osatzen dutena.

Jakina denez, euskera juridikoa, ahalegin izugarriak burutu diren arren, ez dago finkaturik eta sarritan batzorde horretan hizka-mizka sutsuak piztu dira terminoen inguruan (maileguak bai ala ez, hizkera jaso ala arrunta eta abar), elkarte juridikoan dauden iritziak errepikatzen direlarik. Aitortu behar zaie, baina, talde horretan ibili direnei, lan eskerga egin dutela eta behin betiko hizkera juridikoaren oinarriak jartzen ari direla.

Azkenik, atal hau bukatzeko, azterturiko hitzarmen hau sinatzen dutenek organo judizialean euskera erabiltzeko eredu zko esperientziak sustatuko dutelaren konpromesua bereganatzen dute.

Esperientzia horien helburua, bulego judizialaren barruko lana euskeraz bultzatzea, herritarren hizkuntza eskubideak asebetetzea eta funtzionarioen hizkuntza-ezagueria sendotzea da.

Aldez aurretik erabakiko diren organoen bulegoaren eguneroko lana euskeraz egitean dautza esperientzia horiek, esan bezala. Horretarako gaitasuna duten, eta era berean, prest egonen diren funtzionarioek parte hartuko dute, epe jakin batean, itzultzaile baten laguntzaz —dinamizatzailea ere dei dezakeguna— eta euskeraz normalizatutako agirien ereduak erabiliko dira.

“ Termino juridikoen normalkuntzarako batzordeak lan eskerga egin du eta behin betiko hizkera juridikoaren oinarriak jartzen ari da ”

Hori akordio horretan jasotzen den arren, esperientzia horiek abian zeuden 1998ko urriaz geroztik. Zehatz-mehatz esateko, Bergarako lehen instanziako eta instrukzioko 1., 3. eta 4. epaitegiak; Durangoko lehen instanziako eta instrukzioko 1. eta 3. epaitegiak, Bilboko lehen instanziako 8. epaitegia; hiri honetako instrukzioko 6. epaitegia eta Donostiako Auzitegi Probintzialeko Hirugarren Atala aukeratuak izan dira hain zuzen ere proiektu hori martxan jartzeko, erakunde hauetan funtzionario euskaldunen kopurua altua baita.

5. Eusko Jaurlaritzak

Orain arte aztertu dugunez, Eusko Jaurlaritzak zenbait euskera normalkuntzaren jardura beste erakundeekin batera aurrera eramane du. Atal honetan, berriz, batez ere Justizia Administrazioetako funtzionarioekin burutu dituen ekintzak azalduko ditugu.

1996ko apirilean Euskal Jaurlaritzak funtzionarioen transferentziak bere gain hartzen ditu. Urte horretara arte Justizia Ministerioaren menpean zeuden. 1997an akordio batera iritsi ziren Eusko Jaurlaritza eta funtzionarioen sindikatuak. Hitzarmen horretan lan baldintzei buruzko akordioaren atal garrantzitsu bat euskeraren ingurukoa zen. Itun horretan, bi alderdiek elkarrekin Justizia Administrazioan euskalduntze normalkuntza plan bat egitea adostu zuten, eta plan hori onartu bitartean —oraindik ez dago eginda—, erakunde judizialeko zenbait lanpostuk hizkuntza eskakizuna eduki beharra onartzen zutela adierazi zuten.

Honen ondorioz, plantila berri bat proposatu zion Eusko Jaurlaritzak Justizia Ministerioari¹¹.

11. Plantila, ez adituentzat, epaitegi nahiz auzitegi baikotzeko funtzionarioen zerrenda da. Zerrenda honetan, erakunde judizial bakoitzean zenbat agente, laguntzaile eta ofizial dauden zehazten da eta funtzionarioen Erregelamenduak dioenez, plantilak lanpostuko funtsezko ukanbeharrak finkatzen ditu.

Aldez aurretik azaldu behar da aginte judizialeko laguntzeko dauden funtzionarioek estatu mailako funtzionario gorputz izaera dutela, hau da, estatuko kidegoak dira, eta horregatik, nahiz eta aipatutako urtean transferentziak burutu ziren, oraindik Madrilgo gobernuak zenbait eskumen gordetzen ditu, hauen artean plantilen onartzea hain zuzen ere.

Sindikatuekin eta Euskal Herriko Auzitegi Goreneko Gobernu aretoarekin (eta gero Kontseilu Nagusiaren oniritziarekin) adostutakoaren arabera, plantila horretan epaitegietako lanpostu batzuentzako derrigorrezko hizkuntza eskakizuna exigitzen zen, gune euskaldun edota ia guztiz euskaldunetako epaitegietarako bereziki.

Alta, Justizia Ministerioak 1998an atzera bota zuen proposamena eta gainera Konstituzio Auzitegiaren aurrean eskumen gatazka aurkeztu zuen Eusko Jaurlaritzaren dekretuaren kontra, eta horretan plantila zegoenez, plantila honen aurka ere bai, Madrilgo gobernuak uste baitzuen derrigorrezko hizkuntza eskakizunak exigitzea legez aurkakoa zela.

Konstituzioaren 162.2 atalaren arabera, errekutso hori onartzen bazen, plantilaren dekretua bertan behera geratzen zen. Etendura hori urte hartako irailean jazo zen hain zuzen ere.

Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak, konponbiderik gabeko eragozpen horretatik ateratzeko, beste plantila bat proposatu zion hizkuntza eskakizunik sartzeko.

Nolanahi ere, Konstituzio Auzitegiak 1999ko urtarrilean, Konstituzioaren aipatu artikulua horretan ezarrita dagoen bost hilabeteko epea igaro baino lehen, behin-behingo dekretuaren alderdi baten, plantilari zegokionaren, etendura jaso zuen, baina Justizia Ministerioak ez zuen inoiz hizkuntza eskakizunak zituen plantila onetsi; bai, ordea, bestea, ez zituena, oztopoa gainditzeko Justizia Sailak Madrilgo gobernuari igorri ziona.

Erabaki honen ondorioz, eta aurrerantzean, Konstituzio Auzitegiak behin betiko gatazka konpondu bitartean —hiruzpalau urte barru jazoko dena—, ezin izango du Eusko Jaurlaritzak perfilik ezarri.

Gatazka hori funtzionarioen euskalduntze normalkuntzarako enbarazua izan daitekeen arren, eremu honetan baikor egoteko arrazoiak badaude.

1988az geroztik, Justizia Sailak lehenengo transferentziak jaso zituenetik, funtzionarioen nolabaiteko euskalduntze prozesu bat egon da, zeren eta hamarkada honetan Justizia Administrazioan lan egiten dutenei euskerazko klaseak eman baitzaizkie, beraiek nahi izan dutelako, eta langile asko ikasten ari dira.

Urte honetako ekainaren amaieran, osterara ere, Justiziako sindikatuek benetako euskalduntze plana aldarrikatu dute, beraien ustez dagoen eredia, hau da, borondatezkoa, ez baita nahikoa euskera ikasteko, nahiz eta erraztasun handiak dituzten horretarako.

Justizia Saileko datuei erreparatuz gero, oraintxe bertan langilegoaren %30a baino gehiago lana euskeraz egiteko gai dela aitor dezakegu, nahiz eta, 1996ko apirilaz geroztik, adierazi dugun legez —eta zenbait mugekin bestalde— esparru honetan ahalmenak dituen. Epe laburrean, %40ra igo daiteke kopuru hori.

Horrek guztiak ahalbidetu du, beste jardueren artean, erakunde judizialean lehen azaldutako esperientzia horiei ekitea, eta ordenagailuetan dauden euskerazko agiri horiek erabiltzen hastea.

Hala eta guztiz ere, funtzionario euskaldun horien banaketa geografikoa ez da egokiena, ez baitator bat populazioaren beharrekin, gune euskaldun guztietan behinik behin.

Egokiera hori, beharraren eta langilegoaren artekoa alegia, erdiesteko normalizazio plan bat egitea, Sindikatuek eskatzen duten bezala, ezinbestekoa da, legegintzaldi honetan aurrera eraman daitekeena.

Lan honetako alde honetan, guztiz bidezkoa da aipatzea Justizia Sailak bultzatu zuela 1998ko hasieran Justizia Administrazioan euskeraren erabilera normalizatzeko erakundearteko batzorde bat, Eusko Jaurlaritzak (Justizia eta Kultur Sailak eta EHAAk), Aginte judizialak (Kontseilu Nagusiak, Gobernu aretoak, epaileen elkarteak) eta beste erakundeek (Abokatuen Elkargoak, Fiskaleen elkateak eta idazkari judizialek) osatzen dutena.

Erakunde honek hiru zeregin nagusi ditu: lehendabizikoa, euskeraren esparruan ahalmena duten zenbait erakunderi aholkularitza ematea; bigarrenez, hizkuntza honen aldeko zenbait proiektu eta ekimen bultzatzea —horietako batzuk lan honetan azaldutakoak— eta azkenik batzorde horretan ordezkaturako erakundeen arteko komunikazio bidea izatea.

Hasten ginenean adierazten genuenez, Justizia Ministerioak oraindik zenbait eskumen mantentzen ditu, hauen artean idazkariak eta fiskalak, erakunde horren menpean nolabait daudenak. Erakunde honek, baina, euskeraren eta normalkuntzaren alde ezer egin ez duenez gero —alderantziz, oztopoak besterik ez ditu jarri funtzionarioekin aztertu dugun legez—, Eusko Jaurlaritzak bi elkargo hauen nolabaiteko euskalduntze prozesua bere gain hartu du, erakunde hau izan baita ikaste gastuak ordaindu dituenta, beraiek euskera beren borondatez ikasi nahi izan dutenean, hauekin noski ez baita benetako euskalduntze planik egon.

Azkenik, atal hau bukatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko itzulpen zerbitzuaz aipamen txiki bat egin behar dugu, zerbitzu hau Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailordetzaren menpean baitago.

Bizkaian 4 itzultzaile daude, 4 Gipuzkoan eta 1 Araban. Zehatzago esanda, noizbait itzultzaile bat badago bi barruti judizialentzako. Adibide gisa, Gernika eta Durangoko epaitegiatarako badago bat bere egoitza Gernikan duena eta Tolosa eta Azpeitiako epaitegiatarako badago beste bat Tolosan bere egoitza duenari.

Azken hiru urteotan 3 itzultzaile izatetik 9 izatera igaro gara eta gainera zenbait kasutan EHAko itzultzaileek sustengua eman diote Justiziako itzulpen zerbitzuari, baldin eta hau zegoen lana (ahozko zein idatzizkoa) egiteko gauza ez bazen.

Eusko Jaurlaritzak, bestalde, ahalegin aipagarriak egin ditu zuzenbide prozesalean, hitz juridikoetan eta bat-bateko itzulpenen itzultzaileak trebatzeko.

Egoerarik onena, zalantzarik gabe, itzultzaileen beharra ez egotea litzatekeen arren, momentuz sistema honekin, lehen aipatutako prebentzioarekin batera, moldatu beharko dugu eta itzultzaileek egin dezaketen kalitatearen lana arrazoizkoa dela iruditzen zait, nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko azken memorian (1998. urteari dagokiona) agertzen denez, itzultzaileen lana eta gure esparruan euskeraren erabileraren hazkundera handia izan den.

6. Etorkizuna

Azaltzen saiatu garenez, azken hiru urteotan urrats garrantzitsuak eman dira normalkuntzaren ildotan. Euskalduntze prozesua bizkortu eta azkartu den arren, horrela jarraituz gero, denbora luzeak igaro beharko luke egoera egoki batera iristeko eta horregatik guztiagatik ekimen osagarriak hausnartzen ari dira.

Proposamen hauen artean, ezbaierik gabe, epaitegi euskaldunen zirkuitoen ingurukoa da oihartzun handiena lortu duena.

Proposamen hau, nik behinik behin, 1997ko abenduan Gasteizen ospatutako Justizia Administrazioako euskerari buruzko jardunaldietan entzun nuen.

Hasiera batean, lehenengo irudipenak oso aurkakoak izan ziren, batez ere neurri hori Konstituzioaren 24.2 atalean bermatuta dagoen legeak alde aurretik finkatutako epaile ohikorako eskubidearen aurkakoa izan baitzitekeen, finean

herritar batek epailea edo epaitegia aukera lezakeelako hizkuntzaren arabera.

Iritzi horren atzean beti epaile edo epaitegi bakarraren ideia zegoen eta kasu honetan egia izan liteke argudio hori, benetan auzia zein epailek ebatziko lukeen aurrez finka litekeelako.

Hizkuntzaren araberrako banaketa hori onartzeko jarri den enbarazurik garrantzitsuenari irtenbide juridiko bat eman zaio egun hauetan zehar, ohartu baikara eskubide hori ez litzatekeela urratuko, baldin eta legeak aurreikusiko balu zehatz-mehatz irizpide objektibo hori, hau da hizkuntzarena, auziak banandu behar diren unean, eta honen ondorioz irizpide horri jarraituz banatuko balira, eta batez ere bi epaitegi edo gehiago baleude euskerazko prozedurak banatzeko unean, arruntagoa izango dena datozen urteetan, epaile eta funtzionario euskaldun gehiago erdiesteko diren neurrian.

Honen ildotik, aurrera joanda, arestian Kontseilu Nagusiaren osoko bilkura aztertzen hasi da hizkuntzaren irizpidearen araberrako prozeduren banaketari buruzko proposamen bat.

Emilio Olabarria jaunak proposatutako ekimenaren araberrako, hizkuntza ofizialak beste irizpide bat izan daiteke espedienteak epaitegien artean banatzeko. Honek ez du zertan beste irizpideen aurka, normalean kopuruarena eta gaiena alegia, jo behar; irizpide hori, berriz, osagarria izan liteke.

Konstituzioaren aurkakotzat ez hartzeko, bada, barruti judizial batean eta orden juridikoz horretan behinik behin bi epaile euskaldunek egon beharko lukete.

Nire ustez, proposamen hau da, gauzatuko balitz, beste azaldutako neurrien sakontzearekin batera, epe laburrean edo ertainean bederen, hautematen dudan irtenbide bakarra, dagoen euskeraren eskaerari, gero eta handiago dena, aurre egiteko eta euskaldunon hizkuntza eskubideak indar osoz bermatzeko.